

# festikale

2021

Landa-
inguruneko
arteen VIII.
jaia

VIII Fiesta
de las artes
en medio
rural

Babeslea, artistiko eta tekniko zuzendaritza / Patrocinador, dirección y producción artístico técnica:

PANTA RHEI

Babesleak / Patrocinadores:

Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

araba álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE | inaem

Kolaboratzaileak / Colaboradores:

Gaia

Bideart

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA | DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Festikale 2021

Ongi etorri Zigoitiko Festikale 2021era. Landa Inguruneko Arteen Jaia. Komunitatearen beraren ikur perfektua den jaia. Perspektiba ematen digun artea, errealitate sortzaileagoak eta askeagoak lortzeko ate ugari irekitzen dituena.

Hemen dago Festikale 2021 "jaiaren artea" eta "artearen jaia". Originaltasun- eta garapen-potentzial dinamikoarekin dator.

Orainaldi hau ospatzeko, elkarren arteko bakartze oro baztertzeko, ekintza artistikoan dena ematen duen komunitate baten dinamika sortzaile alaia indartzeko. Gure nortasun erkide sutsuenarekin, anitzenarekin eta baikorrenarekin lotzeko.

Bakoitzaren esku dago nolakoa izango den Zigoitiko Arteen Jaia.

Ongi etorri.

Bienvenidas y bienvenidos a Festikale 2021 en Zigoitia. Fiesta de las Artes en Medio Rural. La fiesta que es el perfecto emblema de la comunidad misma. El Arte que nos da perspectiva, que abre múltiples puertas hacia realidades más creativas y libres.

Aquí está Festikale 2021 "el arte de la fiesta" y "la fiesta del arte". Llega con un dinámico potencial de originalidad y desarrollo.

Para celebrar este presente, para rechazar todo aislamiento de las unas hacia las otras, para fortalecer la alegre dinámica creadora de una comunidad volcada en la acción artística. Para conectar con nuestra identidad común más entusiasta, diversa y optimista.

De cada una depende cómo sea la Fiesta de las Artes en Zigoitia.

Bienvenidas, bienvenidos.

## Viernes 9 Ostirala

**19:00**
**Gonzalo Catalinas Gállego**
**Butoh Dantza Tailerra / Taller de Danza Butoh**
Butoh Dantza laborategia / Laboratorio Danza Butoh
Gazteak eta helduak / Jóvenes y adultos
Zigoitiko Kultur Etxea / Centro Socio-cultural de Zigoitia

## Sábado 10 Larunbata

**10:00 - 14:00**
**15:30 - 19:30**
**Gonzalo Catalinas Gállego**
**Butoh Dantza Tailerra / Taller de Danza Butoh**
Butoh Dantza laborategia / Laboratorio Danza Butoh
Gazteak eta helduak / Jóvenes y adultos
Zigoitiko Kultur Etxea / Centro Socio-cultural de Zigoitia

## Domingo 11 Igandea

**10:00 - 14:00**
**Gonzalo Catalinas Gállego**
**Butoh Dantza Tailerra / Taller de Danza Butoh**
Butoh Dantza laborategia / Laboratorio Danza Butoh
Gazteak eta helduak / Jóvenes y adultos
Zigoitiko Kultur Etxea / Centro Socio-cultural de Zigoitia

## Jueves 15 Osteguna

**18:45**
**Inauguración FESTIKALE Inaugurazioa**
Edonorentzat / Todos los públicos
Parque Bengolarra Parkea

**19:45**
**MG Producciones**
**La cuadrilla de la TIA**
Musika animazioa / Animación musical
Edonorentzat / Todos los públicos
Parque Bengolarra Parkea
45 minutuko 2 emanaldi, 30 minutuko atsedenaldiarekin / 2 pases de 45 min. con descanso de 30 min.

**22:00**
**Korterraza**
Film laburren jaialdia / Festival de cortos
Edonorentzat / Todos los públicos
Parque Bengolarra Parkea

## Viernes 16 Ostirala

**19:00**
**Cal y Canto Teatro**
**Familiako argazkia / Foto de Familia**
Sorkuntzako eta jende aurrean aurkezteko egoitza / Residencia de creación y presentación con el público
Ikusle gazte eta helduak / Público joven y adulto
Gorbeia Eskola

**20:15**
**Kukai Dantza**
**Hnuy Illa**
Dantza / Danza
Ikusle gazte eta helduak / Público joven y adulto
Teatro Zigoitia Antzokia

**21:30**
**Fetén Fetén**
**Melodías de ultramar**
Kontzertua / Concierto
Edonorentzat / Todos los públicos
Parque Bengolarra Parkea

## Sábado 17 Larunbata

**12:00 - 14:00**
**16:30 - 18:30**
**Galiot. Teatre de titelles**
**Muntatu txotxongiloa / Monta títere**
Erakusketa-Tailerra / Exposición-Taller
Ikusle familiarrak / Público familiar
Parque Bengolarra Parkea
20 minutuko saioak / Pases de 20 minutos

**18:30**
**Marie de Jongh**
**Ikimilikiliklik**
Familiako ikuskizuna / Espectáculo familiar
Parque Bengolarra Parkea

**20:00**
**El espejo negro**
**Espejismo**
Ikusle helduentzat / Público adulto
Teatro Zigoitia Antzokia

**21:30**
**Deabru beltzak**
**Tambours de feu**
Antzerki-animazioa / Animación Teatral
Edonorentzat / Todos los públicos
Parque Bengolarra Parkea

## Domingo 18 Igandea

**13:30**
**El Callejón de Cachán**
**Jazz**
Kontzertua / Concierto
Edonorentzat / Todos los públicos
Restaurante Artzegi Jatetxean



**Viernes 9 Ostirala 19:00**
**Sábado 10 Larunbata**
**10:00-14: 00, 15.30-19:30**
**Domingo 11 Igandea**
**10:00-14:00**

Gonzalo Catalinas Gállego

**Butoh Dantza Tailerra / Taller de Danza Butoh**

**Butoh Dantza laborategia /** Laboratorio Danza Butoh

**Gazteak eta helduak /** Jóvenes y adultos

**Zigoitiko Kultur Etxea /** Centro Socio-cultural de Zigoitia



## Butoh Dantza Tailerra

Eratzen gaituen gauzarik ezkutuenarekin eta kaotikoenarekin harremanetan jartzea eta haren ahotsa gorputzean sentitzea izango litzateke Butoh-ren funtsa. Gorputzak, adierazpen-meditazio baten bidez, giza irudiaren dekonstrukzioa erakusten du, krisi existentzialean eta inkontzientearen, senaren eta paradoxikoaren boterean sakontzen duena. Ezezagunaren miaketa hori aukera bat da gorputzean lotan itxaroten dauden gure izatearen alderdiekin harremanetan jartzeko, eta potentzial horri bide ematen dio modu artistikoan. Proposamen horretatik abiatuta, Butoh dantzaria munduarekin harremana izaten saiatzen da ikasitako gorputz-ereduak apurtuz, poesiaren eta ametsaren bidez beste bide batzuk arakatu ahal izateko.

Dantza- eta antzerki-dinamika fisiko eta keinu bidezkoaren bitartez eta metaforaz betetako entrenamendu-errutinen bitartez, taldeko kontzientzia-egoera asaldatuak eragiten saiatzen naiz.

## Gonzalo Catalinas Gállego

Diziplina anitzeko artista izanik, goiz sortu zen antzerkiaren arloan nuen interesa. Madrilen egin nituen Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Arteterapiako Masterra, eta bideoan eta performancean fokatu nintzen. Han izan nuen Butoh dantzarekiko nire grinaren berri.

Duela hamabost urtetik, ikus-entzunezkoetako irakaslea naiz Aragoiko arte eta diseinu ikasketetan. Gaur egun, Butoh dantzaren diziplinarteko laborategi bat dut Zaragozako Luis Buñuel Zentro Sozial Komunitarioan, eta noizbehinka tailerrak eskaintzen ditut Espainian, Ingalaterran, Alemanian, Italian edo Turkian.

Zaragozan lanean aritu naiz Dies Irae, Ana Continente eta Romperlanzas konpainiekin. Hainbat artista nazionalekin (Nacho Arantegui, Ernesto Sarasa, Cuerpo Transitorio, La Espiral del Silencio, Acciones Imaginarias, El Ojo Mecánico) eta nazioartekoekin (Minako Seki, Wangnin Bunmei, Antony Maubert) lan egiten dut. Hainbat performance eta antzerki-, musika- eta koreografia-ikuskizun egin ditut, eta modu aktiboan parte hartu dut baterako sorkuntza-jaialdietan, hala nola Nowhere, BBB, Agni Spirit, Own Spirit, Mugarik gabeko dantzak eta AUM jaialdietan.

## Taller de Danza Butoh

Contactar con lo más recóndito y caótico que nos constituye, sentir su voz en el cuerpo sería la esencia del Butoh. El cuerpo muestra a través de una meditación expresiva una deconstrucción de la figura humana que ahonda en la crisis existencial, el poder del inconsciente, del instinto, de lo paradójico. Esta exploración de lo desconocido se convierte en una ocasión para contactar con las facetas de nuestro ser que aguardan dormidas en el cuerpo, y da cauce a ese potencial artísticamente. Desde esta propuesta, el bailarín del Butoh intenta experimentar una relación con el mundo rompiendo los patrones corporales que han sido aprendidos, para así poder explorar nuevos derroteros a través de la poesía y el ensueño.

A través de dinámicas de danza y teatro físico y gestual, con rutinas de entrenamiento cargadas de metáforas busco la inducción de estados alterados de conciencia grupales.

## Gonzalo Catalinas Gállego

Artista multidisciplinar, comenzó tempranamente mi interés en el terreno del teatro. Hice en Madrid Comunicación Audiovisual y un Máster de Arteterapia, enfocándome en el vídeo y la performance. Allí descubrí mi pasión por la Danza Butoh.

Desde hace quince años soy profesor de audiovisuales en enseñanzas artísticas y de diseño en Aragón. Actualmente, mantengo un laboratorio transdisciplinar de Butoh en el Centro Social Comunitario Luis Buñuel de Zaragoza, ofreciendo esporádicamente talleres por distintos lugares de España, Inglaterra, Alemania, Italia o Turquía.

He estado trabajando en Zaragoza con compañías como Dies Irae, Ana Continente y Romperlanzas. Colaboro con diversos artistas nacionales (Nacho Arantegui, Ernesto Sarasa, Cuerpo Transitorio, La Espiral del Silencio, Acciones Imaginarias, El Ojo Mecánico), e internacionales (Minako Seki, Wangnin Bunmei, Antony Maubert). He llevado a cabo multitud de performances y espectáculos teatrales, musicales y coreografías, participando activamente en festivales co-creativos como Nowhere, BBB, Agni Spirit, Own Spirit, Danzas sin fronteras, AUM.



## Jueves 15 Osteguna
## 19:45

## MG Producciones
## La cuadrilla de la TIA

**Musika animazioa** / Animación musical

**Edonorentzat** / Todos los públicos

Parque **Bengolarra Parkea**

**45 minutuko 2 emanaldi, 30 minutuko atsedenaldiarekin** / 2 pases de 45 min. con descanso de 30 min.



## La cuadrilla de la TIA

LA CUADRILLA DE LA T.I.A. “SKA OPERAZIOA” aurkezten du. Mortadelo eta Filemon T.I.A.-ko detektibe ausartak, Bakterio irakaslearen laguntzarekin, “Ska operazio” izeneko beste misio batean murgildu dira eta Jamaiko subertsiboen talde bati jazarri beharko diote.

Banda zazpikote batek osatzen du (kaxa, dunbala, tuba, tronpeta, tronboia, saxoa eta teklatua), eta Mortadelo eta Filemonek, txotxongilo erraldoiaren formatuan, eta Bakterio irakasleak asmakizun ikaragarrien gurdiarekin laguntzen diete.

## MG Producciones

Mg Producciones Manuel Gutiérrezek eta Conchita Lopezek sortu zuten 1966an. Familiako enpresa bat da, aitzindaria Kantabriako arteen arloan eta estatuko lehen management bulegoetako bat.

Arlo profesionalean duen 45 urtetik gorako esperientziak bermatuta, sortzaileen esperientzia eta profesionaltasuna Manuel eta David Gutierrez semeek ekarri duten freskotasunarekin eta teknologiarekin uztartzen jakin du enpresak, haien lanari jarraipena emanaz eta haien lana handituz.

M.G. Producciones kontzertuen kontratazioan eta ekoizpenean espezializatu da eta estatuko eta nazioarteko hainbat eta hainbat artistaren Kantabriako birak ekoitzi ditu.

## La cuadrilla de la TIA

LA CUADRILLA DE LA T.I.A. Presenta “OPERACIÓN SKA”. Los intrépidos detectives de la T.I.A., Mortadelo y Filemón con la colaboración del Profesor Bacterio, se embarcan en una nueva misión “Operación Ska” en la que tendrán que ir en persecución de un grupo de Jamaicos subversivos.

La Banda se compone de un septeto musical, (Caja, bombo, tuba, trompeta, trombon, saxo y teclado) acompañados de Mortadelo y Filemón en formato de títere gigante y el profesor Bacterio con su carro de inventos inverosímiles.

## MG Producciones

Fundada en 1966 por Manuel Gutiérrez y Conchita Lopez, Mg Producciones es una empresa familiar pionera en el campo artístico en Cantabria y una de las primeras oficinas de management a nivel nacional.

Avalada por más de 45 años de experiencia en el campo profesional la empresa ha sabido fusionar a la perfección la experiencia y profesionalidad de sus fundadores con la frescura y la tecnología que han aportado sus hijos, Manuel y David Gutiérrez, continuando y ampliando su labor.

M.G. Producciones se ha especializado en la contratación y producción de conciertos habiendo producido las Giras en Cantabria de multitud de artistas nacionales e internacionales.




## Jueves 15 Osteguna 22:00

## Korterraza

**Film laburren jaialdia** / Festival de cortos

**Edonorentzat** / Todos los públicos

Parque **Bengolarra Parkea**

## Goi mailako hautaketa

Hartuko diren ia milatik 10 film labur onenak. Kalitate, eduki eta interes handiko film laburrek osatzen dute Goi mailako Hautaketa. Komedia, suspensea, drama eta hasieran animazio-ukitua nahasten dituen atala da.

Ez da haurrentzako berariazko hautaketa bat, baina film labur gehienak ikusle guztientzat dira (lan bakoitzaren aurretik ohar bat agertuko da gomendatutako adinarekin eta lanak ordenatuta egongo dira gomendatutako adinaren arabera, haurrek eta gazteek ahalik eta film labur kopuru handienaz gozatzeko aukera izan dezaten).

90-105 minutuko saioa.

## Korterraza

Korterraza duela 10 urte hasi zen Gasteizko erdiguneko terraza batean.

4 urte geroago terraza txiki geratu zitzaigun, eta Artiumeko barneko plazara joan ginen, leku egokiagoa baitzen guk proposatutako jaialdia egiteko.

Hurrengo urtean pentsatu genuen berdin kostatzen zitzaigula jaialdi bat egitea (Gasteiz) edo asko egitea, eta Korterraza Araba sortu zen. Dagoeneko bost urte daramatza probintzia osoan, eta 150 proiekzio baino gehiago egin dira.

Eta 2017az geroztik, Madrilgo Erretiroan ere arrakasta handia ari da lortzen. 2019an pentsatu genuen garaia iritsi zela jaialdia ikusi nahi zuten edozein lekutara zabaltzeko.

## Super selección

Los 10 mejores cortometrajes de los cerca del millar que se recibirán. La Súper Selección está formada por los cortometrajes más destacados del año por su calidad, contenido e interés. Es una sección mezcla de comedia, suspense, drama y un toque de animación al comienzo.

No es una selección específica para público infantil, pero la mayoría de los cortometrajes son para todos los públicos (antes de cada trabajo aparecerá un aviso con la edad recomendada y en el orden de proyección las obras van ordenadas de acuerdo a la edad recomendada para permitir que el público infantil y joven pueda disfrutar del mayor número de cortometrajes).

Sesión de 90-105 minutos.

## Korterraza

Korterraza comenzó hace 10 años en una céntrica terraza de Vitoria-Gasteiz.

4 Años después la terraza se nos quedó pequeña y nos trasladamos a la plaza interna de Artium, un lugar más adecuado para la realización del festival que proponíamos.

Al año siguiente, pensamos que casi casi nos costaba lo mismo hacer un festival (Gasteiz) que muchos y nació Korterraza Araba, que lleva ya 5 años por toda la provincia con más de 150 proyecciones a sus espaldas.

Y desde el 2017 el Festival está instalado con éxito también en el distrito Retiro de Madrid. En el 2019 creemos que ha llegado el momento de expandir el festival a cualquier recóndito lugar dónde nos quieran.



## Viernes 16 Ostirala 19:00

## Cal y Canto Teatro

## **Familiako argazkia / Foto de Familia**

**Sorkuntzako eta jende aurrean aurkezteko egoitza** / Residencia de creación y presentación con el público

**Ikusle gazte eta helduak** / Público joven y adulto

Gorbeia Eskola

## Familiako argazkia

<<Haurra nintzela, amak te-kaxa bat ebaki eta argazki-kamera bihurtzen zuen. Zulo txiki bat egiten zuen kaxan eta une batez argia sartzen zen, irudia film-zati batean finkatuz. Hala, argazkilari izatera jolasten nintzen.

Gero, gela ilun batean errebelatzen zuen irudia, eta irudia agertzen zenean magikoa zen. Nire ama protesten erritmoan eratutako belaunaldi bateko kidea izan zen. Amak ez zidan inoiz kontatu. Baina nik argazkien bidez jakin nuen kaleetan zer gertatzen zen.>>

Ikuskizunak familia baten istorioa kontatzen du argazki bidez. Espazio zirkular inguratzaile batean, ikusleak inguruan esertzen dira.

Bi belaunaldiren istorioa da, hainbat bidaia, herrialde eta borrokatan murgiltzen dena, beren nortasuna ez galtzeko ahaleginean.

## Cal y Canto Teatro

Cal y Canto Teatro taldeak 2002an eman zion hasiera bere lan profesionalari. Ana Ortega eta Marcos Castro sortzaileek sorkuntza-lan propioaren aldeko apustua egin zuten. Horretarako, estetika pertsonala konfiguratu zuten batez ere kaleko antzerkian.

Cal y Canto Teatro taldearen ikuskizunak mundu osoko jaialdi garrantzitsuetan egon dira: Espainia, Polonia, Kanada, Taiwan, Hego Korea, Frantzia, Italia, Holanda, Belgika, Kolonbia, Israel...

Cal y Cantoren eboluzio sortzailean, ikuskizunek ikusleentzako hizkuntza harrigarri berriak asmatu dituzte. Ikuskizun horietan kometen inguruko ikerketa nabarmentzen da, eta imajinario propioa sortu dute bertan.

## Foto de Familia

<< Cuando era niña, mi madre recortaba una caja de té y la transformaba en una cámara fotográfica. Hacia un pequeño agujero por donde la luz penetraba un instante, fijando la imagen en un trozo de película. Así yo podía jugar a ser fotógrafa.

Más tarde revelaba la imagen en una habitación oscura, la imagen aparecía, aquello era mágico. Mi madre fue miembro de una generación que se formó al ritmo de las protestas. Ella nunca me lo contó. Pero yo supe lo que sucedía en las calles a través de sus fotografías. >>

El espectáculo narra la historia de una familia a través de sus fotografías. Un espacio circular, envolvente, donde el público se sienta en derredor.

Un historia de dos generaciones, que se abre paso a través de diversos viajes, países y luchas intentando no perder su identidad.

## Cal y Canto Teatro

Cal y Canto Teatro inicia su trabajo profesional en 2002. Sus fundadores Ana Ortega y Marcos Castro apuestan por una labor de creación propia. Configurando una personal estética fundamentalmente en el teatro de calle.

Los espectáculos de Cal y Canto Teatro han estado presentes en destacados festivales de todo el mundo: España, Polonia, Canadá, Taiwán, Corea del sur, Francia, Italia, Holanda, Bélgica, Colombia, Israel...

En la evolución creativa de Cal y Canto, sus espectáculos han inventado nuevos lenguajes sorprendentes para el público. En la que destacan la investigación en el mundo de las cometas, donde han creado un imaginario propio.



Viernes 16 Ostirala
20:15

Kukai Dantza
Hnuy Illa

Dantza / Danza

Ikusle gazte eta helduak / Público joven y adulto

Teatro Zigoitia Antzokia

## Hnuy Illa

2008 sortutako ikuskizuna da, Kukai Dantzak eta Tanttaka Teatrok 2020an berrikusi eta eguneratua. Poesia, dantza, ikus-entzunezkoak eta musika batera agertokian. Puzzle batean bezala, Mireia Gabilondok eta Jon Mayak Joseba Sarrionandiaren unibertsoan ehundu dituzte hizkuntza horiek, eta oso ikuskizun erakargarria osatu dute. “Ate bat irekitzea bezalakoa da zerbait berria gerta dadin: ez tonu alaiarekin, agian malenkoniatsuarekin...”

## Kukai Dantza

Kukai Dantza Errenterian (Euskal Herrian) sortu eta bertan egoitza duen konpainia da. Jon Maya Sein dantzari eta koreografoaren ekimenez sortu zen 2001ean. Dantza tradizionaletik abiatutako sorkuntza garaikidea du ezaugarritzat. Hizkuntza propioa landu du eta, bere ibilbidean, arrakasta handiko ikuskizun eta lankidetza ugari sortu ditu.

Kukai Dantzaren ikuskizunak hogeita bost herrialde baino gehiagotako antzoki eta jaialdietan egin dira. Sari garrantzitsuak jaso ditu: 2017ko Dantza Sari Nazionala, arte eszenikoen MAX SARIAK 2009, 2015, 2017 eta 2019an, Kataluniako Kritikaren Saria 2016an, Antzerkiko Donostia saria, Huesca eta Valladolideko Nazioarteko Jaialdien sariak... Umore Azokako Ohorezko saria...

Proiektu artistikoarekin batera, Kukai Dantzak herritarren partaidetzarako proiektu bat garatzen du Errenteriako egoitzan, eskola, kolektibo eta dantzari gazteekin proiektuak eginez.

## Hnuy Illa

Un espectáculo creado en 2008, revisado y actualizado en 2020 por Kukai Datza y Tanttaka Teatro. Poesia, danza, audiovisuales y música conviven en el escenario. Como en un puzzle, Mireia Gabilondo Y Jon Maya han tejido estos lenguajes en el universo de Joseba Sarrionandia, construyendo un espectáculo muy sugerente. ”Es como abrir una puerta para que suceda algo nuevo: No con tono alegre, tal vez melancólico...”

## Kukai Dantza

Kukai Dantza es una compañía que nace y reside en Errenteria (Guipúzcoa-País Vasco), creada por iniciativa del bailarín y coreógrafo Jon Maya Sein, en el año 2001. Teniendo como sello la creación contemporánea a partir de la danza tradicional, ha cultivado un lenguaje propio y, en su trayectoria, ha creado numerosos espectáculos y colaboraciones de éxito.

Los espectáculos de Kukai Dantza se han representado en teatros y festivales de más de veinticinco países. Ha recibido destacados premios: Premio Nacional de Danza 2017, PREMIOS MAX a las artes escénicas 2009, 2015, 2017 y 2019, Premio de la Critica de Catalunya 2016, Premio Donostia de Teatro, Premios en Festivales Internacionales de Huesca, Valladolid... Premio de Honor Umore Azoka...

En paralelo a su proyecto artístico, en su residencia de Errenteria, Kukai Dantza desarrolla un proyecto de participación ciudadana mediante proyectos con escuelas, colectivos y jóvenes bailarines.





## Viernes 16 Ostirala
## 21:30
## Fetén Fetén
## Melodías de ultramar

**Kontzertua** / Concierto

**Edonorentzat** / Todos los públicos

Parque **Bengolarra Parkea**



## Melodías de ultramar

"Melodías de Ultramar" gure azken diskoa da. Disko horretan, zorionez, gonbidatu hauek izan ditugu: Miguel Rodrigañez, Nacho Mastretta, Marina Sorín, Pablo Navarro, Martin Bruhn, Pablo Martín, David Herrington, Osvi Grecco, Josete Ordoñez, Javier Ruibal eta Carmen París. Fetén melodietan barrena egindako bidaia da, Carlos Rayaren laguntzarekin grabazioan eta produkzioan. Ezin zoriontsuago egon!

Programa didaktikoen eta Mexikon eskainitako 10 kontzertuen ondoren, 2019an, penintsulako txoko askotara eraman gintuen Melodías de ultramar izeneko birarekin jarraitu genuen.

Atzerrirako hainbat bidaia gehitu ziren gure Fetén agendan urte horretarako: Austria, Portugal eta Danimarka. Gure Melodías de ultramar leku guztietara eramateko energia eta gogoa!

## Fetén Fetén

Fetén Fetén Jorge Arribasen eta Diego Galazen musika-proiektua baino askoz gehiago da, arimaren hizkuntza da harmonia bihurtuta. Taldearen lehen konpasak 2009an entzun ziren, Burgosko musikariek beren eragin eta oroitzapenei soinu-banda jartzeko premiatik sortuta.

2009an sortu zenetik, bikoteak "Fetén Fetén" (2011) eta "Bailables" (2014) albumak ekoitzi ditu mikromezenasgoarekin. 2016. urtean "Cantables" iritsi zen, beren musika-konposizioei beste artista batzuen letrak eta ahotsak gehituta, besteak beste, Fito Cabrales, Jorge Drexler, Julieta Venegas eta Natalia Lafourcaderenak. 2018an "Melodías de Ultramar" argitaratu zuten.



Gaur egun, "Cantables II" diskoaren grabazioan murgilduta daude, berriz ere letrak eta kantariak batuz beren doinuei. 2016. urtean gauzatu zen sorkuntza-ariketa original hark bigarren zatia izango du "Madame Vodevil"-ek 2021. urtearen hasieran argitaratutako album berri batean.

## Melodías de ultramar

"Melodías de Ultramar" es nuestro último disco en el que tenemos la suerte de contar con invitados como Miguel Rodrigañez, Nacho Mastretta, Marina Sorín, Pablo Navarro, Martin Bruhn, Pablo Martín, David Herrington, Osvi Grecco, Josete Ordoñez, Javier Ruibal y Carmen París. Un viaje por las melodías Fetén que cuenta en la grabación y producción con Carlos Raya ¡no podríamos estar más felices!

Después de los programas didácticos y los 10 conciertos por México, continuamos en 2019 con la gira de melodías de ultramar que nos llevó a muchos rincones de la península.

Varios viajes al extranjero confirmados se sumaron a nuestra agenda Fetén para ese año: Austria, Portugal y Dinamarca. ¡Energía y ganas de llevar nuestras melodías de ultramar a todos los lugares!

## Fetén Fetén

Fetén Fetén es mucho más que el proyecto musical de Jorge Arribas y Diego Galaz, es el lenguaje del alma hecho armonía. Sus primeros compases se escuchan en 2009 naciendo de la necesidad de estos músicos burgaleses de poner banda sonora a sus influencias y recuerdos.

Desde que comenzara su andadura en 2009, el dúo ha autoproducido con micromecenazgo los álbumes "Fetén Fetén" (2011) y "Bailables" (2014). En 2016 llegaría "Cantables", un disco en el que incorporan letras y voces a sus composiciones musicales con artistas de la talla de Fito Cabrales, Jorge Drexler, Julieta Venegas o Natalia Lafourcade, entre otros. En el 2018 publican "Melodías de Ultramar".

En la actualidad, están inmersos en la grabación de "Cantables II" en el que de nuevo suman letras y cantantes a sus melodías. Aquel original ejercicio creativo que se materializó en una primera entrega en 2016, tendrá una segunda parte en un nuevo álbum publicado por "Madame Vodevil" a principios del 2021.



## Sábado 17 Larunbata

12:00 - 14:00, 16:30 - 18:30

## Galiot. Teatre de titelles

## **Muntatu txotxongiloa / Monta títere**

**Erakusketa-Tailerra** / Exposición-Taller

**Ikusle familiarrak** / Público familiar

Parque **Bengolarra Parkea**

**20 minutuko saioak** / Pases de 20 minutos



### Erakusketa-Tailerra

Bengolarra parkea erdian oso leku berezia dago. Masiako ate zaharrez eratutako lisatzeko mahaiak arotz banku bihurtuko dira, eta umeek animalien txotxongiloak muntatuko dituzte.

Antzinako mahaitxo zahar eta birziklatuen tiraderen barruan, desmuntatutako egurrezko piezak aurkituko dituzte eta, burdinazko euskarrien laguntzarekin, txotxongiloa muntatzen joango dira egurrezko torloju bereziekin. Une batez, txikienak txotxongilolari handiak izango dira.

### Galiot. Teatre de titelles

Galiot Teatre konpainia gara; txotxongiloen arte eszenikoei eskainitako 25. urteurrena ospatzeko, ekoizpen berri bat sortu dugu.

Duela 7 urte etapa berri bat hasi genuen gure txotxongilo-ikuskizunekin batera, hain zuzen ere txotxongiloen arteari eskainitako formatu handiko instalazioak.

2010ean, “Txotxongiloak” izeneko instalazioa sortu zen; antzoki txikiz osatutako 250 metro karratu, 150 txotxongilorekin eta 12 manipulazio-teknika desberdinekin, txotxongilolari-lanbidea familian ikasteko. 2016an “Txotxongiloen mundua” izeneko formatu handiko karpa iritsi zen. Karpa batean gertatzen da dena: munduko txotxongiloen kultura ezagutzera emateko bidaia txiki bat egingo da karpan.

Eta ikusleek txotxongiloekin parte hartzeko proiektu handi honen hirugarren zatia amaitzeko, “Muntatu Txotxongiloak espazioa” dator. Umea, une batez, txotxongilolari bihurtuko da eta animalia-txotxongilo bat muntatuko du egurrekin.

### Exposición-Taller

En medio del parque de Bengolarra aparece un espacio muy peculiar. Un conjunto de mesas de planchar con portones antiguos de masía se convertirán en bancos de carpintero donde las niñas y los niños montarán los títeres animales.

Dentro de cajones de viejas mesitas, antiguos y reciclados, encontrarán las piezas de madera desmontadas y con unos soportes de hierro irán montando el títere con unos tornillos muy peculiares de madera. Durante un rato, los más pequeños serán grandes titiriteros.

### Galiot. Teatre de titelles

Somos la compañía Galiot Teatre; para celebrar nuestro 250 aniversario dedicados al mundo de las artes escénicas de los títeres hemos creado una nueva producción.

Desde hace 7 años empezamos una nueva etapa paralela a nuestros espectáculos de títeres como son las instalaciones de gran formato dedicadas al arte de los títeres.

En el 2010 nace la instalación “Los Títeres”; 250 metros cuadrados de pequeños teatrines con 150 títeres y 12 técnicas de manipulación diferentes para aprender en familia el oficio del titiritero. En el 2016 llega la carpa de gran formato “Mundo Títere”. Todo pasa dentro de una carpa donde se realiza un pequeño viaje para conocer la cultura de los títeres del mundo.

Y ahora, para acabar la tercera parte de este gran proyecto de participación del público con los títeres, llega “El espació Monta Títeres” El niño durante un rato será un carpintero titiritero montando un títere animal con maderas.

## Sábado 17 Larunbata 18:30

## Marie de Jongh **Ikimililikiliklik**

**Familiako ikuskizuna /** Espectáculo familiar

Parque **Bengolarra Parkea**



## Ikimilikiliklik

Martirio txikia zenean, beldurtu egiten zen hainbat arrazoirengatik, baina baziren bi arrazoi izu ikaragarria eragiten ziotenak: norbait babesik gabe ikustea eta sorginak, mendi tontorrean etxe zaharretan bizi diren emakume bakarti eta gaiztoak.

Martiriok, bere armiarmatxo maitea babestu nahian, beldur mordoa gainditu zuen. Horrela kontatu digu Martiriok, handitan “sorgin” bihurtu denak.

Sorginik gabeko sorginen istorioa, ausartik gabeko ausarten istorioa, magorik gabeko istorio magikoa, hain ume ez diren umeen eta hain heldu ez diren helduen istorioa.

## Marie de Jongh

Ikusle guztientzako antzerkiranzko bidaiarekin jarraituko dugu, hunkitzeko sortutako istorioen bidezko belaunaldien arteko elkarketarekin.

Ea portu horretara osasuntsu eta onik iristen garen guztiok, heldu zein txiki, herrikideak guztiok. Helduentzako eta haurrentzako antzerkia aukeratzeko eskaera sistematizatuaren aurrean, helduentzako haur-antzerkia eta haurrentzako heldu-antzerkia egiten hasi ginen; inoiz ez genuen egin nahi izan haurrentzako haur-antzerkia. Ez da erraza, presioa handia da. Ea iristen garen.

Marie de Jongh erreferente bihurtu da familia osoarentzako Euskal Herriko eta Espainiako antzerkiaren esparruan. Jokin Oregi zuzendariak idatzi eta zuzendu ditu orain arte egindako ikuskizun guztiak eta haren sormenean oinarritutako ukitu nahastezinarekin sari ugari irabazi ditu eta gorantz egiten ari den balio bihurtu da.

## Ikimilikiliklik

Cuando Martírio era pequeña se asustaba por múltiples razones, pero había dos, en concreto, que le provocaban un pavor descorazonador: ver a alguien desprotegido y las brujas, esas solitarias y malvadas mujeres que viven en viejas casuchas en lo alto de la montaña.

Martírio, queriendo proteger a su querida arañita, fue superando un montón de miedos. Así nos lo cuenta la propia Martírio quien, ya de mayor, se ha convertido en...una “bruja”.

Una historia de brujas sin brujas una historia de valientes sin valientes una historia mágica sin magos una historia de niños que no son tan niños y unos mayores que no lo son tanto.

## Marie de Jongh

Seguimos nuestro viaje hacia un teatro para todos los públicos, un encuentro intergeneracional a través de historias creadas para emocionar.

Ojalá lleguemos sanos y salvos a ese puerto de todos, mayores y pequeños, conciudadanos todos. Ante la insistencia sistematizada de elegir entre teatro para adultos y teatro infantil, empezamos haciendo teatro adulto para niños y teatro infantil para adultos, nunca quisimos hacer teatro infantil para niños. No es fácil, la presión es fuerte. Ojalá lleguemos.

Marie de Jongh se ha convertido en un referente dentro del panorama teatral vasco y español dirigido a toda la familia. Con un sello inconfundible, basado en la creatividad de su director, Jokin Oregi, quien escribe y dirige todos los espectáculos hasta la fecha, ha ganado numerosos premios y se ha convertido en un valor en alza.



## Sábado 17 Larunbata
## 20:00

## El espejo negro
## **Espejismo**

**Ikusle helduentzat** /
Público adulto

Teatro **Zigoitia Antzokia**



## Espejismo

Ikusleek, Alicia errugabearen moduan, kristala zeharkatuko dute Ispilu Beltzaren lekurik sakonenean murgilduz: argia nagusi den mundu ilunean, izaki dotoreak, lotsagabeak, samurrak, gaiztoak, bakartiak, probokatzaileak eta umore garratz eta adarjotzailez betetako arimak bizi diren lekuan.

Ilunpetik ateratako pertsonaia androgino eta bitxi batek, hiru txotxongilolariren laguntzarekin, mundu paralelo batean murgilduko gaitu kristalaren beste aldetik. Ispilu honek ikusten duena deformatzen du, gure bekatuak eta makurkeriak batere lotsarik gabe erakusteko.

Musika, argia, iluntasuna, objektuak, txotxongiloak eta aktoreak ispilutik atera eta sartzen dira. Ispilu horrek harrapatu eta irentsi egingo ditu, zulo beltz handi batek bezala.

## El espejo negro

Ángel Calvente idazle andaluziarrak sortu zuen 1989an, hizkera garratz eta adarjotzailearekin. Haren ikuskizunak probokatzaileak, berritzaileak eta teknikoki akatsik gabeak dira, eta antzerkia egiteko estilo eta modu bat markatu dute, txotxongiloen antzerki-estilo berri baten sortzaile gisa identifikatzen dutena, hau da, ukitu guztiz originalekoak, eta El Espejo Negro jatorrizko deitura duen marka eman die bere ikuskizunei.

Angel Calvente hasieratik saiatu da txotxongiloaren mundua duintzen El Espejo Negro konpainiaren bidez. Txotxongiloen antzerkiak helduentzat zein haurrentzat dituen aukeren adierazle nagusietako bat da gaur egun. Gaur egun erreferentzia da txotxongiloaren antzerki-munduan.

## Espejismo

El público, cual inocente Alicia, atravesará el cristal adentrándose en lo más profundo del Espejo Negro: un mundo oscuro donde reina la luz, donde residen criaturas elegantes, irreverentes, tiernas, perversas, solitarias, provocadoras, almas llenas de humor corrosivo y burlón.

Un andrógino y extravagante personaje salido de las tinieblas, ayudado por tres marionetistas, nos sumergirá en un mundo paralelo desde el otro lado del cristal. Este es un espejo que deforma lo que ve para mostrarnos, sin pudor, nuestros pecados y bajezas.

Música, luz, oscuridad, objetos, marionetas y actores salen y entran del espejo, un espejo que les atrapará para devorarlos enteritos, como un gran agujero negro.

## El espejo negro

Creada en 1989 por el autor andaluz Ángel Calvente, con un lenguaje corrosivo y burlón. Sus espectáculos son provocadores, innovadores y técnicamente impecables, y han marcado un estilo y una forma de hacer teatro que lo identifican como creador de un nuevo estilo de teatro con marionetas, es decir, con un sello absolutamente original, dando a sus espectáculos una marca con denominación de origen El Espejo Negro.

Ángel Calvente desde sus principios ha perseguido la dignificación del mundo de la marioneta a través de su compañía El Espejo Negro. En estos momentos es uno de los principales exponentes de las posibilidades del teatro de títeres tanto para adultos como para niños y niñas. Siendo hoy en día un referente dentro del mundo teatral de la marioneta.



## Sábado 17 Larunbata
## 21:30

## Deabru beltzak
## **Tambours de feu**

**Antzerki-animazioa /**
Animación Teatral

**Edonorentzat /**
Todos los públicos

Parque **Bengolarra Parkea**



## Deabru beltzak

Deabru Beltzak Kale-antzerkia 1996an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat talde profesionaletako aktoreen eskutik. Harrezkero, 10 muntaketa egin ditugu, 3.000 emanaldi baino gehiago, 80 enkargu-ekitaldi, hiriko jaien 50 zuzendaritza eta mundu osoko 35 antzerki-konpainiarekin baino gehiagorekin lan egin dugu.

Honako hauekin batera lan egin dugu: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, kultura eta kirol Ministerioa, Bilboko udala (kultura-saila), Gouvernement du Québec, Moulin Fondu, Le Fourneau, Leioako Umore Azoka, Fest'Arts Libourne, Fira de Teatre de Tarrega, Arriola Kultur Aretoa, Chalon dans la Rue, Lekeitio Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia, Portal 71, Bizkaiko Foru Aldundia, etab. 5 kontinentetan eta 35 herrialdetan baino gehiagotan lan egin dugu, eta Euskadiko konpainiarik nazioartekoena izatea lortu dugu.

## Tambours de feu

Aker akelarreko deabrua kaleetan barrena dabil. Bera eta bere perkusio-jotzaileen taldea herri eta hirietan barrena dabiltza. Zuzeneko musikaren, pirotekniaren eta efektu berezi handien ikuskizuna. Esku bat danbor batean eta bestea probokazioan jarrita, Deabru Beltzak taldearen proposamen berria sortzen da. Danborrek bibratu egiten dute, kaleak argiztatu egiten dira. Presta zaitezte...

Ikuskizun honek musika, piroteknia eta efektu bereziak nahasten ditu, dena zure hiriko ibilbidean. Su primitiboa eta deabruzko erritmoek jai sinboliko eta original batean entretenitzen dute publikoa.

## Deabru beltzak

Deabru Beltzak Teatro de Calle, nace en 1996 de la mano de actores y actrices de diferentes grupos profesionales del País Vasco. Desde entonces, hemos realizado 10 montajes, más de 3.000 representaciones, 80 eventos de encargo, 50 direcciones de fiestas urbanas y hemos colaborado con más de 35 de compañías teatrales de todo el mundo.

Colaboramos con: Gobierno Vasco, Ministerio Español de educación cultura y deporte, Ayuntamiento de Bilbao (area de cultura), Gouvernement du Québec, Moulin Fondu, Le Fourneau, Leioako Umore Azoka, Fest'Arts Libourne, Fira de Teatre de Ta0rrega, Arriola Kultur Aretoa, Chalon dans la Rue, Lekeitio Nazio Arteko Kale Antzerki Jaialdia, Portal 71, Diputación Foral de Bizkaia, etc. Hemos trabajado en 5 continentes y en más de 35 Países, consiguiendo ser la compañía más Internacional del País Vasco.

## Tambours de feu

Aker el diablo del akelarre deambula por las calles. Él y su séquito de percusionistas recorren pueblos y ciudades. Un espectáculo de música en directo, pirotecnia y grandes efectos especiales. Con una mano en un tambor y la otra en la provocación, surge la nueva propuesta de Deabru Beltzak. Los tambores vibran, las calles se iluminan. Prepárense...

Este espectáculo mezcla, música, pirotecnia y efectos especiales, todo a lo largo del recorrido de tu Ciudad. El fuego primitivo y los ritmos diabólicos entretienen al público en una fiesta simbólica y original.



Domingo 18 Igandea
13:30

El Callejón de Cachán
**Jazz**

**Kontzertua** / Concierto

**Edonorentzat** / Todos los públicos

Restaurante **Artzegi Jatetxean**

## El Callejón de Cachán

‘El Callejón de Cachán’ Gasteizko hirukote bat da, Ana Sosoagak, Pedro González de Viñaspre teklatu-jotzaileak (Handicap rock taldeko kideak biak) eta Iñigo López biolin-jotzaileak osatutakoa. Hasiera-hasieratik egin dute gai propioen aldeko apustua, ironia, kritika eta kronika sozialez betetako testuak modu berezian zainduz. Testu horiek guztiak ‘Por si las moscas’ diskoan jaso dira.

Haien musikak ez du etiketa bat bilatu nahi, kantinako eta kabareteko usainak, errezitaldi intimista baten, blues-aren eta gauaren usainak jariatzen ditu, eta hori guztia ikuslearengana hurbiltzeko koktel-ontzi eklektiko batean irabiatuta.

Lehen CDa 2021eko urtarrilean grabatu zuten, Gasteizko El Pez estudioetan, Nando de la Casaren ekoizpenarekin. Diskoak hamar pieza ditu. Horrez gain, ‘Bonus Track’ berezi bat ere badu, Handicap taldearekin batera egindako ‘Tres del Tres’ izenekoa. 1976ko martxoan Gasteizko Zaramaga auzoan gertatutako sarraskiaren biktimei eskainitako abestia da, Polizia Armatuak bost langile hil zituenekoa.

## El Callejón de Cachán

‘El Callejón de Cachán’ es un trío vitoriano formado por la vocalista Ana Sosoaga, el teclista Pedro González de Viñaspre (ambos componentes también del grupo de rock Handicap) y el violinista Iñigo López. Desde un primer momento han apostado por temas propios, cuidando especialmente unos textos repletos de ironía, crítica y crónica social, recogidos todos ellos en su disco de presentación ‘Por si las moscas‘.

Lejos de buscar una etiqueta, su música destila aromas de cantina y cabaret, de recital intimista, de blues y nocturno, todo ello agitado en una coctelera ecléctica de proximidad al espectador.

La grabación de su primer CD se hizo en enero de 2021 en los estudios El Pez de Vitoria-Gasteiz con la producción de Nando de la Casa. El disco contiene diez temas. Incluye además un ‘Bonus Track’ especial junto al grupo Handicap titulado ‘Tres del Tres’, canción dedicada a las víctimas de la masacre ocurrida en marzo de 1976 en el barrio vitoriano de Zaramaga donde cinco obreros fueron asesinados por la Policía Armada.

